

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak proposatu du Comptos Ganberak kargu publikoen ondarea ikuska dezala

Ekintza publiko baten jardueran zehar jasotako diru-sarreraren inguruko berme gehigarria ematen du

Miércoles, 17 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak foru-legaren aurreproiektu bat aintzat hartu du Comptos Ganberak bere goi-karguen ondarea sakonki fiskaliza dezan honako hau erabakitzeko helburuarekin: haien ordainsari, jarduera eta ondasunen aitortpenek beren ondarean zehatz-mehatz islatzen duten eta funtzio publikoko aldiaren zehar jasotako diru-sarreretara egokitzen diren.



Nafarroako Gobernuaren bilkura.

Neurria 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako alkateei zabaltzen zaie, bai eta 10.000 baino gehiagoko udalerrietako zinegotziei ere; arrazoi hori dela eta, Toki Erregimeneko Foru Batzordean eztabaidatuko da.

Nafarroako Gobernuak goi-karguen eta erakundeetako kargu hautetsien ondare-eboluzioa fiskalizatzeko foruaren aurreproiektuak bederatzi artikulua eta bi xedapen gehigarri jasotzen ditu.

Indarrean sartzeko, araua gehiengo absolutuz onartu beharko da Nafarroako Parlamentuan; izan ere, Comptos Ganberaren jarduketa-esparrua zabaltzea dakar egungo legeriaren arabera. Zehazki, organo hori arautzen duen 19/1984 Foru Legearen lau atal aldatu beharko dira, jatorri publikoko funtsak fiskalizatzeaz arduratzen dena, goi-karguen diru-sarrerak, esaterako. Beste foru-lege batzuk egokitzea ere beharrezkoa izango da: Foru Komunitateko Administrazioarena (1990); Nafarroako Gobernuak kideen eta Goi Karguen Bateriaezintasunena (1996); eta Nafarroako Gobernuarena eta haren Lehendakariarena (2004), bai eta Nafarroako Parlamentuko araudiarena ere.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilari Javier Morrásek asteazken honetako Gobernuaren bilkuran ekimen legegilearen ildo nagusien berri eman du, eta [ordainsari publikoen gardentasunari](#), bateraezintasunari eta aitortpenari buruzko araudiari berme gehigarri eta osagarri bat emango dio. Azaldu duenez, goi-karguen ondareari buruzko kontrol-mekanismo berri bat da.

1996. urtetik, haiek jada jardueren aitortpena egiten dute (izaera

publikoa zuena) eta ondasun eta ondare-eskubideen beste bat, isilpeko izaera zuena gardentasunaren foru-legea indarrean sartu arte, 2012ko abenduan, eta Foru Komunitateko [Gobernu Irekiaren](#) webgunea aktibatu arte.

Gobernuaren ekimenak Comptos Ganberak egin beharko duen urteroko fiskalizazio-programaren irizpideak jasotzen ditu. Kontrol-aldia kargu publikoa uzten den unean amaituko da, nahiz eta hurrengo bi urteetan ikertu ahal izango den. Berariaz ezartzen da Gobernuak Lehendakariak nahiz kontseilariak nahitaez beren agintaldiak amaitzean fiskalizatuko direla.

Ikuskapen-prozedura

Aurreproiektuak ikuskapen-prozedura finkatzen du zehazki. Haren lana garatzeko, Comptos Ganberak izango ditu: izendapena dela eta aurkeztutako ondasun nahiz jardueren aitorpenak; jardutean zehar aurkeztutako segidako aitorpenak; eta agintaldia amaitzean eman behar dena. Ekimenak subjektuen betebeharrak ere jasotzen ditu, hau da, eskatzen zaien informazio fiskala nahiz ekonomikoa ematea, eta diru-mugimenduen berri ematea.

Ikuskapen bakoitza ondorio erraz, ulergarriekin amaituko da, eta hiru aukera zehaztuko dituzte: goi-karguaren egoeraren egokitzapena eta ondare-aldaketa; egoera horren funtsezko egokitzapen-eza; edo balorazio hori egiteko ezintasuna.

Arauak arau-urratzeak finkatzen ditu lankidetzaz ezagatik –informatzeko betebeharra ez betetzea–; berme-prozedura zehazten du ikuskatuaren eskubideen defentsa babesteko eta Ganberarekin dauden desadostasunak konpontzeko; eta egoera horren funtsezko egokitzapen-ezaren ondorioak zehazten ditu edo balorazioa egiteko ezintasuna, bai eta Comptos Ganberaren betebeharra ere, hau da, irregulartasun-zantzuak ikusten baditu, dagozkio organo administratibo edo judizialei eramatea.

Hori guztia sartuko da, goi-karguen ondare-eboluzioa fiskalizatzeko programari buruzko urteroko txosten batean, eta Comptos Ganberak publiko egingo du. Foru Parlamentuak, haren araudia aldatuz, antzeko tresnaren bat garatu ahal izateko bokazioa ere adierazi du.